



# SARDINIA

mendia itsasoan



“MENDIA ITSASOAN”, HORRELA DESKRIBATU ZUEN RATZEL GEOGRAFO ALEMANIARRAK Italiako bigarren uharterik handiena. Sardiniari buruz ari zen. Mendiaren eta itsasoaren arteko ezkontza horren ondorioz, turista ugariaren jomuga izan ohi da uhartea.

Antzinako sumendien eraginez, eta itsasoaren eta haizeen indarragatik,

Sardiniako orografia gogorra da, puskatua, eta ikusgarria.

Uharte nagusia uharte txikiz inguratua dago; tartean, Maddalena artxipelagoa osatzen dutenak, uharte nagusiaren iparraldean. Artxipelago horretako uhartetxoak ikusgarriak dira.





Granitozko formazio ikaragarriak daude, bai eta bainua hartzeko gogoia ematen duten badiatxoak ere. Parke nazional izendatua dago artxipelagoa, eta, hortaz, eraikitze-erasoetatik libre da.

Maddalena parke nazionaleko tokirik entzunenetakoa Spiaggia Rosa da, hondartza arrosa. Hondarraren koloretik datorkio izena, koral-, maskor-, eta granito-zatikiek kolore arrosa ematen baitiote. ●



© ISTOCKPHOTO.COM/LUCIEN 82



© ISTOCKPHOTO.COM/SERAFICUS



Spiaggia Rosa.

ARG.: © ISTOCKPHOTO.COM/IMAGE OF LIFE



© ISTOCKPHOTO.COM/SERAFICUS